KULTURA SANTA ZEZILIA EGUNA OSPATUKO DA ASTEBURUAN •GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN
KIROLA PATXI ARRIOLA GIPUZKOAKO TXAPELDUNORDE OILAGOR EHIZA TXAPELKETAN

ELGOIBARKO ASTEKARIA •2003ko azaroaren 21a/XI. urtea/466. zkia

# BARREN
ASTEKARIA



JOSE MARI FERNANDEZEK 7. ALDIZ IRABAZI DU KARAKATERA IGOERA

## Karakateko erregea

ZAZPI, EZKABILTZA GAIZKI (esaera zaharra)

GOKI ERREFORMAK

Obrak eta proiektuak

Bainurako denetik







Hidromasajean adituak

Altzariak estilo guztietan







Bainurako osagarrietan aukera zabala

Ateekin ere lan egiten dugu



**Olaso Poligonoa, 15 - 68 pabilioia**

**Tel.: 943 74 28 80 - 943 74 42 23 - 943 74 46 40**

**Faxa: 943 74 45 87**

**20870 ELGOIBAR**

# 40 URTE
# 40 ISTORIO

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



36

## Kultur saltsan

Elgoibarko Izarra euskararekin lotzeko joera badago ere, elkartea, berez, kultur elkarte bat da; Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea da, hain zuzen ere, daukan izena.

Elkartea 1963an sortu eta berehala hasi ziren euskal kulturaren aldeko lanean. Hemen ekimen guztiak aipatu ezin baditugu ere, hona Sebas Larrañagak 63tik 90era izandako kultur jardueren artetik nabarmendu dizkigunak: “*San Antonetako jaialdixa izaten zan referentzia inportante bat. Urtean zihar egitten zan lanaren eskaparatia izaten zan. Gero, sasoi hartako kantaldiak ere edarrak zian: Benito, Lete, Laboa, Lurdes Iriondo eta beste hamaika kantari ekarri genittuan Elgoibarrera. Kalera begira, berriz, euskal jaixak eta Olentzero etortzen jataz burura. Bertso munduan ere jardun gendun: bertso eskola, etxegiña bertso paperak eta Gabonetako bertso jaialdixa dia hiru adibide. Eta, amaitzeko, hitzaldixak eta antzerakuak ere sarri antolatzen genittuan*”.

1990ean elkartea etapa berri batean sartuko da. Eta kultur eskaintzari dagokionez, bi irizpide nagusiren bueltan jardungo du; batetik, aurretik zegoen kultur eskaintza mantentzen eta hobetzen saiatuko da, eta, bestetik, bide berriak zabaltzeko ahaleginari ekingo dio.

Eta izaten al dute estimaziorik kultur jarduerek? Denetik izan dugu. Jendeak oso ondo erantzun duen kasu asko daukagu, zorionez, baina tartean izan dira frakasorik ere. Kultur emanaldietara oso jende gutxi mugitzen den ustea oso zabalduta dago. Gizartearen gehiengoa ez dagoela kultura kontsumitzeko gosez. Eta, akaso, ez da gezurra izango. Baina, gure ustez, kultur *jana eskaintzen* segi egin behar dugu. Hori bai, une bakoitzean jendeak zer eta zenbat jan nahi duen aintzat hartuta.

*Imanol Larrañaga*

40

# iritzia



## Itsasoak eta arrainak

Katalunian abertzaleen botoak izan dira nagusi, eta ezker-zaleen botoak ere bai. Euskaldun askok begi onez hartu dugun emaitza da, beti izan dugulako haien ispiluan begiratzeko ohitura, perfilez begiratzeko ohitura bada ere. Euskaldunok poztu egin gara Partidu Popularrak Kataluniako joko politikoan zeresan gutxi izango duelako aurrerantzean. Eta are gehiago poztu gaitu Esquerra Republicana bezalako alderdi txiki batek boto kopurua bikoiztu izana. Halakoak gara euskaldunak, David eta Goliat-en artean, beti egingo dugu David-en alde. Orain, bai CIUk bai PSCk, Carod Roviraren alderdiari hitza eman beharko diote. Kataluniako itsasoan, arrain txikiak handiekin batera egingo du igeri.

Galiziako itsasoan, ordea, arrainek, itsaskiek, itsasoko landaretzak eta bestelako animaliek urte asko beharko dituzte lehengora bueltatzeko. Urtebete pasatu da Prestige-en hondamendia gertatu zenetik. Hauteskundeak ere izan dituzte tarteko, baina agintariak berberak dira. Duela egun batzuk, Nunca Mais-ek Santiagon antolatu zuen manifestazioan 100.000 lagun elkartu ziren. Iazkoen erdiak. Badirudi, baten batzuek aise ahaztu dituztela Prestige-ek eragindako kalteak. Kalte moralen arduradunek, berriz, egoera bere onera itzuli dela sinistarazi nahi digute. Zer dira, bada, 64.000 tona, fuelolio, ehunka milaka ur tonaren artean?

**Ainhoa Lodoso**

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.


Kexak ....5
motz Motz ....6
gehigarria ....11
kiRolAk ....20
aGenda ....24

2003-XI-21

# Urruzunoren begi ezkutua



## Burdina eta azala

Eraldatu. Birmoldatu. Zatitu. Deformatu. Higatu. Moztu. Soldatu. Iraotu. Izurtu. Forjatu. Estaldu. Torneatu. Menperatu. Menperat... Burdina menperatu nahiz etengabe borrokan aritu diren bizitzak. Burdinaren itzalpean eraiki diren bizimoduak, aurrera egiteko beharrak bultzaturik.

Burdinaren txirbilak maiz zauritzen du lantzen duenaren azala. Azalaren izerdiak aldiz, erraz herdoiltzen du burdina. Patuak elkartu ditu burdina eta azala, baina ez dira elkarrekin bizitzeko jaio. Ura eta olioa bezala. Naturaren kapritxoa. Burdinean higadura murrizten duen sustantzia likatsua da olioa, denboraren kontrako baltsamoa bailitzan, baina berez, gehiago irauteko azpijoko bat besterik ez da.

Ez dago naturaren legeak aldatzerik, haien kontra egiterik. Burdinarekin borrokan bizitza pasatu duenak badaki hori. Baina bizitzak maiz uzten ditu olioa bezalako baltsamoak aurkitzeko zirrikituak.

**Iñigo Otaño**

## Farmazia Okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 21 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 22 | Bidasolo | Fernandez |
| 23 | Fernandez | Fernandez |
| 24 | Yudego | Yudego |
| 25 | Zabaleta | Zabaleta |
| 26 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 27 | Ibañez | Ibañez |
| 28 | Bidasolo | Bidasolo |

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ, Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zkia.

ASTEKARIA
BaRREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
✆ 943 74 41 12
Publizitatea:
✆ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa
DANOBAT
GOITI
ESTARTA

## KEXA

u Urasandiko bizilagun batek ondorengo kexa azaldu digu: “**Gurasoak euren umeak Pilar Ikastetxera eramaten dituztenean, kotxeak edozein tokitan lagatzen dituzte**. Urasandirako sarrera nahiko txarra da berez, eta errebuelta guztia kotxez beteta uzten dutenean, askoz okerragoa da. Gainera, askok ez diote derrigorrezko norabidea adierazten duen seinaleari kasurik egiten, eta debekatutako maniobrak egiten dituzte ikastetxera sartzeko. Ordu txarrak izaten dira denontzat, eta bidean hainbeste oztopo jartzea ez da bidezkoa. Errespetatu seinaleak, eta kotxea ez utzi edozein tokitan, mesedez!”.

s





s

u Emakume batek esan digunez, lanera joateko Urasanditik jaistean **N-634 errepidea gurutzatu behar izaten du, eta errotondako obren ondorioz, semafororik ez dagoenez, oso gaizki ibiltzen da**: “Jende askok gurutzatu behar izaten du errepidea, lanera joateko, edo autobusa hartzeko, eta semafororik ez dagoenez, arriskutsua izaten da. Kotxeak ez dira gelditzen, eta errotonda dagoenetik, toki guztietatik agertzen dira kotxeak. Alde guztietara begira egon behar izaten dugu, korrika pasatu, eta gainera kotxe gidarien bozina jasan behar da. Ez dakigu errotonda amaitutakoan oinezkoentzako nolako pasabidea egingo duten, baina obrak irauten duten artean ere, behin-behineko semaforo bat jartzea beharrezkoa da”.

## TXALO-

u Herritar batek, **Ansolatar Nemesek, hain zuzen ere, Elgoibarko Udal Musika Banda zoriondu nahi du aste honetan**. “Batetik, Santa Zezilia Eguna delako, musikarien zaindaria, eta bestetik, Banda sortu zeneko 118. urteurrena beteko delako aurten. Bide batez, musika maite duten guztiak zoriondu nahi ditut eta Musika Bandak domeka honetan eskainiko duen kontzertu zoragarrian ikusiko garelakoan agurtu”.

?

## GALDE-

u Pedro Migel Urruzuno kaleko bizilagun batek ondorengo galdera luzatu digu: “**Aurtengo Gabonetan jarriko al dituzte apaingarriak Pedro Migel Urruzuno kalean?** Azken urteetan ez dute gure kalean Gabonetako argirik jarri, eta gainontzekoen moduan, merezi dugula uste dut”. Udalera deitu dugu, eta esan digutenez, aurten kanpoko enpresa batek jarriko ditu Gabonetako argiak herriko kaleetan. Printzipioz iazko leku berdinetan jarriko dira, baina toki berri batzuk ere kontuan hartu dituzte. Hala ere, Pedro Migel Urruzuno kalean ez dute ezer jarriko, baina datorren urterako kontuan izango dutela azaldu digute.



# Danobat da EMAS erregistroan inskribatu duten Europako lehen enpresa

Ingurumen Sailburuordetzak E-EU-000011 erregistro zenbakiarekin inskribatu du Danobat Koop. Ingurumenaren Auditoria eta Kudeaketarako Sistema Komunitarioan (EMAS).

Danobat EMAS erregistroan sartzea lortu duen Europako lehenengo Makina Erreminta alorreko enpresa da. Lorpen hau Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Departamentua eta MCCren arteko lankidetza konpromisoaren ondorioa izan da. Konpromiso honen esanetan, EMAS erregistroan dauden enpresek ISO 14001 ziurtagiria lortzeko lanean jarraitu behar dute, ondoren EMAS II lortu ahal izateko.

EMAS erregistroan barneratutako erakunde batek bete behar dituen




konpromisoak besteak beste, hauek dira: etengabe saiatu ingurumena hobetzen, ingurumen arloko araudia bete, gardena izan, hau da: ingurumena kudeatzeko sistemak, programak eta baita ingurumenari buruzko informazioa jendeari eskuragarri izan daitekeen moduan eskaini, eta gaiarekin zerikusia duten guztiekin harreman zabala duela erakutsi behar du.

**EMAS II**

EMAS II erregistroaren esparrua Europar Batasuneko erakundeetara zabaltzen da, eta ingurumenarekiko jokabidea hobetu nahi duten enpresei zuzendutako mekanismo boluntarioa da.

EMAS II erregistroaren abantailarik nagusienak ondorengoak dira: ingurumen araudia guztiz betetzen dela bermatzea, kontrastatutako kalitateko ingurumen Gestioa ezartzea, ingurumen informazioa beste erakunde independiente batek egiaztatzea eta Gizartearen eta kontsumitzaileen aurrean irudia hobetzea.

## Telefono bidezko timoak

Azken egunotan elgoibartar asko telefono bidezko timoak jasaten ari dira. Gabonetako otarre bat tokatu zaiela esaten duen dei bat jasotzen dute. Oparia eskuratzeko, 807 aurrezenbakia duen telefonora deitzeko esaten diete, eta telefono hauek garai bateko 906 telefono zenbakiak baino, askoz garestiagoak dira. Kontsumitzailearen Bulegotik azaldu dutenez, 75 euro orduko kostua daukate. Zenbaki honetara deitu duten pertsonek, denbora luzez egon behar izaten dute zain musika entzuten, beren datu pertsonalak errepikatzen eta beste aldean dagoenaren ordenagailu arazoak jasaten. Denborak aurrera egiten du, eta deia garestitu egiten da. Faktura iristean konturatuko dira asko gustu txarreko timo bat jasan dutela.

# Elgoibarko 215 familiek eman dute izena Kontsumo Ohiturak Hobetzeko Programan

### Debabarrenean 1.139 familiak hartuko dute parte

Debabarrenako 1.139 familiek hartuko dute parte Debegesak antolatutako GAP (Global Action Progam) programan, eta horietatik 215 Elgoibarkoak izango dira. Beraien nahia 1000 partehartzaile inguru lortzea zen, eta kopuru hori gainditu egin dute.



Familia bakoitzak eguneroko kontsumoei buruzko eskuliburu batzuk jasoko ditu, eta bertako galderak erantzun ostean, ondorioak aterako dira.

GAP programaren helburua ingurumena zaindu eta aldi berean etxeko gastuak gutxitzea da. Lehengaien kontsumoa eta kutsadura gutxitu daitezke GAP programari esker, eta era berean, bizi kalitatea hobetzen lagunduko digu. Etxetik bertatik ingurumena hobetzeko gauza asko egin daitezke, eta horretan lagunduko du GAP programak, ura, energia, garraioa eta erosketak murrizten, alegia. Programan parte hartzen dutenek, etxeko zabor kantitatea %20an gutxitu dezakete, ur kontsumoa eta energia %15ean eta CO2aren produkzioa %10ean.

## Bidezko Merkataritzari buruzko hitzaldia



Parrokiako Misio Taldeak antolatuta, bidezko merkataritzaren inguruko hitzaldiak izan ziren joan zen azaroaren 18an eta 19an. Donostiako Caritas Elkarteko Pello Sarasuak eskaini zituen bi hitzaldiak. Helburua kontsumitzaileak erreflexiora bultzatzea zen, hau da, erosten duten produktuak nork egiten dituen, nola eta nondik datozen jakitea, hain zuzen ere. Azaldu zutenez, mundu mailako merkataritza ez da bidezkoa, izan ere, esplotazio handia baitago. Bidezko Merkataritza bultzatzeko asmoz, Misio Taldeak bidezko produktuak saltzeko denda irekiko du Errosario Kalean, abenduaren lehenengo astetik apirilera arte.

## 250 kilo gaztaina banatu zituzten Galiza Kultur

Urtero bezala, Magosto Eguna ospatu zuen Galiza Kultur Etxeak joan zen igandean, azaroaren 16an. Eguraldi txarra egin zuen arren, Galiza Plazan erre zituzten gaztainak. Arratsaldeko 18:00etatik iluntzeko 21:00ak arte, 250 kilo gaztaina banatu zituzten. Galiza Kultur Etxea jendez gainezka zegoen, eta umore ona zen nagusi. Bertara hurbildu zirenek, gaztainak jan eta ardoa dohainik dastatzeko aukera izan zuten.





## Bi elgoibartarrek aurkeztu zituzten Euskadi Literatura Sariak

Bi herritarrek, Jasone Osorok eta Hasier Etxeberriak, aurkeztu zituzten Euskadi Literatura Sariak pasa den azaroaren 18an, Lehendakaritza-ko egoitzan egin zen sari banaketa ekitaldian. Bai bata eta bai bestea kazetaritza eta literatura munduan aski ezagunak dira, baina oraingoan, ez zitzaien saria jasotzea tokatu, aurkezpen lanak

## Errosario Kaleko jaietako zozketa

Errosario Kaleko komertzio eta tabernariek egindako zozketaren irabazleak Begoña De La Fuente (120 euroko saria), Gerardo Castrillejo (60 euroko saria) eta Rafael Urrusolo (30 euroko saria) izan dira. Saria erosketa txeketan jasoko dute, eta



## Parkinson gaixotasunari buruzko konferentzia Eibarren

Gipuzkoako Parkinson Elkarteak (Aspargi), kide berriak lortu nahi ditu. Horretarako, gaixotasuna ezagutarazteko kanpaina bat jarriko dute martxan. Hasteko, gaixotasunaren inguruko konferentzia izango da bihar, azaroak 22, Eibarren daukaten egoitzan. Neurologo espezialista batek eskainiko du hitzaldia, eta gaixotasunaren nondik-norako guztiak azalduko ditu. Azken datuen arabera, Parkinsonak gero eta jende gazteago gaixotzen da Parkinson gaixotasunarekin. Jesus Astigarraga, Elkarteko kideetako batek azaldu duenez, gaixoen senideen inplikazioa ezinbestekoa da. Euskal Herrian 3.000 gaixo daude. Debabarrenean 140 inguru dira Parkinsona duten gaixoak, eta Mendaroko Ospitalean 80 lagun atenditzen dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Aspargik Ipuruako Kiroldegian daukan egoitzara jo daiteke, edo Jesus Astigarraga berari deitu (615 36 43 71).

## Miski Elkarteak Cusco-ko umeen aldeko zozketa egingo du

Miski Elkarteak Gabonetako otarre bat zozketatuko du Cusco-ko (Peru) umeentzako dirua biltzeko helburuarekin. Datorren astean hasiko dira errifak saltzen. Boleto bakoitzak euro bat balioko du, eta zozketa abenduaren 22an egingo da. Bitartean, Bilbao Express bidai agentzian egongo da ikusgai otarrea.

Honekin batera, errifak Elgoibarko ikastetxeetara eramango dira, eta iazko kanpaina bera jarriko dute martxan: “Ikasle bat, errifa bat”, hau da, euro baten truke, ikasle bakoitzari errifa bat erosteko proposamena egingo zaio.

# Santa Zezilia Eguna ospatuko dute herriko musikariek zapatu honetan, azaroaren 22an

## Abesbatzek, Bandak eta Musika Eskolako ikasleek emanaldiak eskainiko

Musikarien zaindarien eguna da Santa Zezilia. Birjina eta martiri erromatarra izan zen eta Jainkoa goratuz himno istrumental eta korala kantatzen zuenez, musikarien zaindari izendatu zuten. Urtero legez, bere omenez hainbat kontzertu eta musika emanaldi eskainiko dituzte herriko musikariek zapatu honetan, azaroaren 22an.

Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleak izango dira goiztiarrenak. Gaur, hilak 21, "Santa Zezilia kontzertua" izango da Musika Eskolako Auditorioan. Arratsaldeko 19:30etatik aurrera hainbat musika talde eta instrumentu entzun ahal izango dira. Zapatuan, Zezilia Egunean, abesbatzen txanda izango da. Parrokiako Abesbatzak lehenik, 19:00etako mezatan abestuko du Santa Zeziliaren omenez. Meza amaitu ondoren, Itxaropena Abesbatzak emanaldia eskainiko du udaletxeko arkupeetan. Azkenik, domekan, hilaren 23an, Udal Musika Bandaren emanaldiak izango dira. 9:45ean kalejiran aterako dira eta 10:30etako meza entzun ostean, eguerdiko 12:30ean kontzertua emango dute Herriko Antzokian. Bada non aukeratu asteburuan, beraz.




**Ildefonso Mª Lizarriturri**

Nemesio Ansolak musikari elgoibartarrik onenetarikoa izan den Ildefonso Maria Lizarriturri organistaren irudia gogoratzeko hainbat datu helarazi dizkigu. Ildefonso Mª Lizarriturri 1859ko urtarrilaren 23an jaio zen Elgoibarren. Musika ikasketak Madrilen bukatu ondoren, 19 urterekin, armonia sari bat irabazi zuen. 1885. urteko maiatzean San Bartolome parrokiako organista izendatu zuten eta 1902an Donostiara joan zen San Bizente parrokiko organista izateko. 17 urte egin zituen han, 1919ra arte. 60 urte zituen eta gaixo zegoenez, organista izateari laga zion. Donostian hil zen 1935. urteko urriaren 26an. Bere gorputza Elgoibarko kanposantura ekarri zuten. Sortu zituen musika gaien artean, txisturako zenbait ereserki daude.

# Nerea Aramburuk irabazi du Elgoibar Herria kartel

Nerea Aramburu elgoibartarrak irabazi du Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatutako "Elgoibar Herria" kartel lehiaketa. 300 euroko diru saria irabazi du eta kartela datorren urteko martxoaren 27 eta 28an ospatuko den "Elgoibar Herria" Lehiaketa iragartzeko erabiliko da. Guztira 10 lan aurkeztu direla azaldu digute Musika Eskolako arduradunek. Naia Membrillera gazteak (argazkian ezkerrekoa) epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen.



# Gotzon Garatek atsotitzen liburua osatu eta berriz argitaratu du

BBK Fundazioak Gotzon Garate filologo eta idazle elgoibartarrak idatzi eta 1998. urtean argitaratutako "Atsotitzak" liburuaren argitalpen berria kaleratu du. Aurreko edizioa agortu eta bi urtera kaleratu dute berria. Deustuko Unibertsitateko Euskal Literatura katedradunak azken bost urteotan lanean jarraitu du eta bere lana zuzendu eta osatuagoa aurkeztu du. Orotara, euskarazko, gaztelaniazko, ingelesezko eta latinezko 30.466 esaera batu ditu (1998koak 27.173 esaera zituen). Liburuak euskarazko 17.000 atsotitz ditu jasoak, gaztelaniazko 5.500, ingelesezko 4.200 eta latinezko 3.700. Gaztelaniatik, ingelesetik eta latinetik hartuko atsotitzak euskarazkoen baliokideak dira. Hogeita hamasei urtean, Euskal Herrian barrena bildu ditu Garatek liburuan



jasotako esaera zaharrak. Idazlearen aburuz, "euskal atsotitzek Euskal Herriaren pentsamoldea agertzen dute". Durangoko azokan izango dira salgai liburua eta CD-Rom-a 36 euroren truke. BBKk bere web orrian ere jasoko du Garateren lana eta liburuaren bertsio eguneratua aztertzeko aukera izango da.

## Laiotz Literatur Aldizkariaren 10. alea kaleratu du Elgoibarko Izarrak




Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak, Laiotz Literatur Aldizkariaren 10. zenbakia kaleratu du, iazko idazlehiaketako irabazleen lanekin. XVII. Prosa Lehiaketa eta XXII. Etxegiña Bertso-Paper lehiaketako irabazleen lanak biltzen ditu Laiotz aldizkariak. Guztira 7 pertsonen lanak aurki daitezke bertan: Prosa atalean, Andrea Arce, Gorane Gonzalez, Leire Mendikute, Antton Alberdi eta Amaia Gorrotxategi izan ziren maila bakoitzeko irabazleak. Bertso-paper lehiaketari dagokionez, Mikel Olaizola eta Gotzon Zulaikaren lanak izan dira aukeratuak.

Honekin batera, Elgoibarko Izarrak 2003ko idaz-lehiaketarako oinarriak kaleratu ditu:

- Lanak entregatzeko epea 2004ko urtarrilaren 30ean amaituko da.
- Elgoibarren ikasten ari den edonork har dezake parte.
- Lanak Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea, Ubitarte 4an, entregatu behar dira, kartazalean maila zehaztuz.
- Lanaren 3 kopia entregatu behar dira, izenburu edo giltz-lema batekin, eta egilearen inolako ezaugarririk gabe.
- Epaimahaia Urruzuno Literatur Taldekoek osatuko dute.

## Haritz Euskal Dantzari Taldea Pas de Basque ikuskizunean parte




Argia Dantza Taldearekin batera, Haritz Euskal Dantzari Taldeak Pas de Basque ikuskizunean parte hartuko du azaroan eta abenduan. Hiru ikuskizun eskainiko dituzte guztira. Lehenengoa, joan zen ostiralean, hilaren 14an eskaini zuten Ermuko Zineman. Hurrengoa bihar, azaroaren 22an eskainiko dute Maulen, eta azkenengoa abenduaren 20an, Donostiako Kursaal Jauregian. Pas de Basque Juan A. Urbeltzen eta Argia Dantzari Taldearen azken ikuskizuna, ondare tradizionalaren sustraietatik abiatu eta modu erabat garaikidean loratzen den etorkizuneko euskal dantzaren ereduaren bilaketan urrats berri bat da. Brikolaje lan xaloa da, eta bertan Juan A. Urbeltzek dantza, emozioak, erritmoak, keinua, musika eta lilura bezalako lanabesak erabiltzen ditu. Ikuskizunak hiru koreografia biltzen ditu; tradiziotik etorkizunera lotsagabeki begiratzen duten hiru proposamen: Desafio Dantzak, Patuaren Dantzak eta Ihauteri Dantzak.

Euskal dantzaren alorrean mugarri bat izaten da Juan A. Urbeltzen ikuskizun bakoitza, eta ikusmin handia sortzen du, ezaguna delako bere emanaldien kalitatea eta tradizioan inspiratzerakoan erakusten duen zorroztasuna. Horren guztiaren adibide izan dira Zortziko (1988), Alakiketan (1991) eta Kondharian (1997) ikuskizunak, ikusleen eta kritikaren txaloak jaso dituztenak.

---

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

## bazkideen urteko BATZAR OROKORRA

NOIZ
- Abenduak 1, astelehena

ORDUA
- Arratsaldeko 19:00etan

NON
- Kultur Etxeko hitzaldi gelan

### Gaien ordena

1.- Lehendakariaren agurra
2.- Azken urteko eboluzioa eta egungo egoeraren diagnosia
3.- Aurrera begira, zer?
4.- Galdera-erantzunak

Ubitarte 1, behea • tel. 943 741 626 • Faxa 943 741 746 • e-posta: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

GAUR HILAK 21, TELEBISTAREN NAZIOARTEKO EGUNA OSPATZEN DA

# TELEBISTAN BA AL DAGO MEREZI DUEN PROGRAMA-



## KONTXI ZABALA

**60 urte, etxekoandrea**

Neri Goenkale gustatzen jata. *Basetxea*, *Gaur Egun* eta *Bertatik Bertara* ere ikusten ditxut. ETB1 da gehixen ikusten doten katia, bestietan kotilleo programa asko egoten da.

## ANTONIO GARCIA

**55 urte, ostalaria**

Bigarren kateko dokumentalak ikusten ditut. Ehiza gustuko dut, eta *Jara y Sedal* programa asko gustatzen zait. Ez dago hainbeste zabor, programa onak ere badaude.





## AMPARO RICO

**32 urte, etxekoandrea**

Niretzako ez, programa guztiak berdinak dira. Telebista ipintzen dudan bakoitzean programa arrosak eta asteburuetan errepikatutako pelikulak egoten dira. Desastre bat da.

## JOSE RAMON RODRIGUEZ

**40 urte, ebanista**

Telebista ikusteak ez du merezi. Astean zehar oso goiz joaten naiz ohera, eta asteburuetan mendira joatea gustatzen zait. Batzutan bideoan ikusteko pelikularen bat alokatzen dut.





## ANDER LEON

**12 urte, ikaslea**

Marrazki bizidunak. *The Simpson's* eta *Shin Chan* gustatzen jataz. Pelikulak ere ikusten ditxut, *James Bond* modukuak, baina umientzako programa gehixo egon biharko litzateke.

## YOLANDA JIMENEZ

**26 urte, irakaslea**

Oso telebista gutxi ikusten dut, ez daukat denborarik, eta gainera ez du merezi. Programa guztiak berdinak dira, normalean bideoan ikusteko pelikulak





## *I. URTEURRENA*

*2002ko azaroaren 17an, 67 urte zituela hil zen*
***TOMAS PEÑA BRIZ**en oroimenez,*
***URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian*
*larunbatean, hilak 22, arratsaldeko 19:00etan.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



Eli Benito ELKARRIZKETA Bertsolaritza GAIA Itxasne Idoeta LOTSAGABE

GAZTE GEHIGARRIA • 2003ko azaroaren 21a XI urtea/466. zkia

# Gaztia Barren

NAIZ



## Eli Benito

# Astegunetan ikasle, mode-lo asteburuetan

entzun

BLACK PEARLS

Euskaldun gehienok Steve Vai gitarjole handiarekin Puente La Reina-ko Gares Aretoa bisitatu zuenean ezagutu genuen Eric Sardinas. Sei soken maisuaren teloneroa zen gau hartan. Ez zen, ordea, kokildurik irten eszenatokira. Eta lehen notak jo bezain laister zur eta lur utzi gintuen guztiok. Dobro bat eskuan zuela gitarra horrekin inoiz entzun gabeko soinuak helarazi zizkigun. Cowboy kapelaz, larruzko prakez eta paparreko tatuajea bistan uzten zuen alkandora hippyaz jantzita irten zen Eric Sardinas. Berarekin batera baxujole baterano bat eta Ameriketako indiar itxura zuen bateria kementsu bat. Slide guitar-a ezin hobeto kontrolatzen zuen eta abesten Johnny Winter-en antz handia zuen. Dudarik gabe, urrezko albinoaren eragin handia du kubatar sustraiak dituen estatubatuar honek. “Treat me right” bere estraineko lana aurkezten ari zen. Harrezkero behin baino gehiagotan etorri da Euskal Herrira. Hori bai, kontzertuko izar gisa. Slide gitarraz southern rock ikutua duen blues&rocka egiten du Eric sardinas-ek. Duela bi urte bere “Devil´s train” bigarren diskoa kaleratu ostean lan berriarekin dator. Lehen bi ekoizpenak Evidence Music zigiluak argitaratu bazituen ere, “Black pearls” Favored Nations Steve Vai-ren diskoetxeak kaleratu du. Eddie Kramer mitikoak ekoiztu du eta rockeroagoa da. Bere dobroaren kanta bikainekin gozatuz zuzenekoaren zai gelditzen gara.

**Ion Gurrutxaga**




## ELI BENITO, modeloa

# "Zu zara telebistakoa? Zer egite hor!! esan zidaten lagunek"

LARA DIBILDOSEN TANKERA DUELA ESAN ZUTEN HAINBAT KOMUNIKABIDEEK, ZIUR ELGOIBARKO MUTILEK ASKOZ EDERRAGOA IKUSTEN DUTELA 18 URTEKO GAZTE HAU. ELI BENITOK ABUZTUAN UDAKO NESKA TITULUA IRABAZI ZUEN DONOSTIAKO MODELU LEHIAKETAN. GARAIPENAREN ONDOREN HAINBAT TELEBISTA ETA IRRATI HURBILDU ZAIZKIO ELKARRIZKETA BATEN BILA. GU ERE, EZ GARA GUTXIAGO IZANGO.

**Nola aurkezten da magisteritza ikasten ari den gazte bat modelu lehiaketa batera?**

Lehenago desfile batzuetan parte hartu nuen eta horietan organizadore bat egoten zen. Deitu egin zidan denda batzuk patrozinatzea proposatzeko, eta bide batez, lehiaketa zegoela esan zidan egun berean. Berdin-berdin desfilatu behar nuenez, ez nion ezetz esan lehiaketari.

**Lehenengo aldiz nola animatu zinen?**

Zapata denda batean nengoen eta Eibarren desfile bat egiteko casting-a zegoela esan zidaten. 15 urte nituen orduan eta desfilea 17 urtetik gorakoentzat zen, baina azkenean parte hartu nuen.

**Gurasoen erreakzioa nolakoa izan zen?**

Hasieran ez zioten garrantzi handirik eman, casting-a gaindituko ez nuela uste baitzuten. Asko harritu ziren ondoren, baina nik argi daukat hau niretzat denborapasa bat dela, asteburuetako zerbait, magisteritza ikasten jarraitu nahi dut. Horregatik lasai daude.

**“Udako neska” titulua irabazi duzu, ezta?**

Bai. 17 neska aurkeztu ginen. Bakero eta kamiseta txuri batez desfilatu nuen hasieran eta bikini eta pareo batez ondoren, hauek lehiaketa barruan sartzen ziren. Denda patrozinatzerako orduan ordea, traje dotore batekin desfilatu nuen. Ez nuen uste



en duzu



irabaziko nuenik, baina begira! Madrilera bidaia bat irabazi dut eta desfile gehiagotan parte hartzeko aukera, beste gauza askoren artean.

**Desfilatzeko zer hartu zenuen kontuan?**

Nik sekula ez nuen epaimahai baten aurrean parte hartu, beti erropa patrozinatzeko desfilatu nuen lehiaketa honetara aurkeztu baino lehen. Horregatik betiko irribarrea luzatu nien epaimahaikoei. Alaitasuna baloratzen dute, erritmoa ondo eramatea eta urduri ez somatzea.

> "Asteburuetan desfilatzeko aukera badago egingo dut, baina denborapasa

**Eta hitzegiteko erreztasuna baloratzen al dute?**

Irabazi nuen lehiaketa honetan bai. Galdera bat egiten dizute, nire kasuan, oporretarako zein leku gustatzen zaidan galdetu zidaten. Ni ez nintzen urduri jarri, izan ere ez nuen lehiaketa moduan hartu.

**Sekula izan duzu momentu txarren bat eszenatoki gainean?**

Oraindik ez. Baina orain dela gutxi mutil bat eszenatokitik jausi zen. Fokoekin askotan ez da ezer ikusten.

**Zer aldatu da garaipenarekin?**

Irabazi nuenean TeleDonostin elkarrizketa bat egin zidaten, hurrengo egunean irratian eta Euskal Telebistan ere agertu nintzen.

Oraingoz Eibarko desfilean hartu dut parte eta Donostian auto gabeko egunean ere telebistan azaldu nintzen desfilatzen.

**Inguruko jendearen erreakzioa nolakoa izan zen garaipenarekin?**

Telebistan agertu nintzanean nire lagun askok ez zekiten parte hartu nuenik eta telefonoz deitu zidaten urduri "Zu zara telebistakoa??!!? Zer egiten duzu hor!! " esanez.

**Etorkizunera begira zein plan?**

Magisteritza jarraitzea dudarik gabe. Asteburuetan desfilatzeko aukera badago ez dut ezetz esango, baina denborapasa moduan.

> " Betiko irribarrea luzatu nien epaimahaikoei. Alaitasuna baloratzen dute, erritmoa ondo eramatea eta ez urduri somatzea"

irakurri

## EULIEN BAZKA

Hasier Etxeberriak bere laugarren nobela aurkeztu du aurtengo lehenengo hilabeteetan: "Eulien bazka" (Susa argitaletxea). "Mugetan" (1989), "Arrainak ura baino" (1999) eta "Inesaren balada" (2002) liburuen ostean, oraingoan nobela poliziakoari heldu dio. Istorioaren protagonista Damian Arruti da, ogibidez entomologoa. Intsektuak aztertzen dituen pertsona hau arduratuko da hainbat pusketatan zatituta agertu den emakume baten heriotza ikertzeaz. Gorpu zatietako batek, gainera, arrasto berezi bat dauka eta ondorioz, hildakoa bere emaztea izan daiteke. Damian Arrutik intsektuen ezagutza handia dauka. Baina liburu honetan, intsektuak ezezik, gizakia eta haren portaera da aztertzen dena. Horrela, protagonista nagusiari dagokionez, bere bakardaderako joera oso ongi deskribatuta dago. Eleberriak trama arina du eta irakurleak erraz jarraitzen du haria. Gainera, istorioa nola Euskal Herrian kokatuta dagoen, Hendaian finkatutako idazleak ez du gure herrialdeko errealitate politiko eta soziala kritikatzeko aukera galtzen. Bukaera, ordea, guztiz esperogabea da halako nobela poliziakoetan eta egia esan, ni neu, ez nau asebete aukerak.

**Jon Eugi**



GAIA

# Bertsolaritzaren EB



Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen ekimenez, Donostia munduko ahozko inprobizazioaren bilgune izan zen azaroaren 3tik 8ra. Guk ere Elgoibarko bertsolaritza aztertu nahi izan dugu.

Elgoibarko Izarrako bertso eskola 1981.urtean sortu zen eta hasierako urteetan Angel Ugarteburu, Xabier Arriola eta Daniel Legorburu izan ziren irakasle eta sustatzaileak. Eten labur baten ondotik 1991-92 ikasturtean German Meamebasterrretxeak hartu zuen bertso eskolaren ardura, eta garairik onenean hiru talde desberdin izatera ere heldu ziren: haurrak, bapateko taldea eta bertsolaritzara hurbildu nahi zuen zaletu talde bat.

Bapateko taldeko partaideak uzten joan ziren arabera galdu zuen indarra bertso eskolak nahiz eta Irati Agirreazaldegiren ardurapean haurren taldeak beste pare bat urte egin zituen. 3 ardatz nagusi daude gaur egun, gure herriko bertsolaritzan: bapateko taldea, Gaztetxea eta Ainhoa Mendibil eta Erlantz Allur-ek ikastolan sortu duten bertso eskola.

German Meamebasterretxearekin egon gara eta bertso eskolen ezberdintasunez galdetu diogu *"Bertso eskolak ez du zertan bertsolariak ateratzeko eskola bat izan behar. Azken helburu hori lortzen ez bada ere bertsozaleak lortuko ditu, gaijartzaileak, epaimahian lana egingo dutenak... Bertso eskola kokatua dagoen eskualdeak ere zeresan haundia dauka helburuak finkatzerakoan"*.

Askotan burutu den eztabaida da bertsotan ikasi egin daitekeen edo berezkoa behar den *"Berezko dohai eta zaletasun bat behar da, baina hortik aurrerakoa beste gauza guztiak bezala landu egin behar da. Bertsotan trebatzea ez da mahai inguruan jarri eta nahi duenak nahi duena botatzea... era askotako ariketak eta prestaketa motak daude. Funtsezkoa hizkuntza menperatzea da eta hiztegi eta esamolde aberatsa izatea. Hortik aurrera ariketa mota asko dago bertso teknikak lantzeko eta trebatzeko... eta guztiz beharrezkoa asko jardutea, eta ahal bada jende aurrean"*

Gure ingurua ez da bereziki bertsozalea Gipuzkoako beste bailara batzuekin alderatzen badugu. Hala ere, aspalditik bai herrian



eta baita herriko auzo gehienetako jaietan ere bertso saioak antolatzen dira. Horren lekuko herriko jaietako bertso saioak, Gabonetako jaialdia, San Migel, San Pedro, Sallobente eta San Roke auzoetako jaietan burutzen diren saioak.

2003-XI-21

## SANTA AGEDA

Santa Ageda eskeak ere betidanik izan du estimazioa eta herriko kaleetan zein baserriz-baserri antolatzen da.







Herrian bertso eskolarik ez zegoela eta, Ainhoa Mendibil eta Erlantz Allur-ek hutsune hori bete nahi izan zuten ikastolan. *"Pasa den urtean hasi ginen eta LH 4, 5 eta 6 kurtsoetako umeei zegoen zuzenduta; 10 ikaslek eman zuten izena eta hasieran oso lotsatuta zeuden. Guretzat ere ez zen batere erraza, izan ere, ez genekien zein maila zegoen edo nolako motibazioa zeukaten"* esan digu Ainhoak, *"Kantu zaharrak, bertso berriak abesten ditugu eta horretarako kasetak edo bideoak erabiltzen ditugu". Lotsa kentzeko ariketak direla garrantzitsuenak dio Ainhoak " hasieran ez zuten ahozkatzen, oso azkar abesten dute.. eta jendaurrean ondo abesten ikasi behar zuten. Horretarako ariketa eta joku asko egiten ditugu".*

Aurten bapateko taldea berriz sortu da (goiko argazkiko hirukotea) eta larunbatero elkartzen dira bapateko bertsoak abestera. Dena den, oso jende gutxik eman du izena eta taldea handitzea nahi da. Horregatik **ANIMO!** Eman izena Elgoibarko Izarran, ziur ez zarela damutuko!



## GAZTETXEAN ERE BERTSOTAN

Gaztetxean bertsolaritzaren inguruan egiten diren jardunaldiak ere ezin dira ahaztu. Hainbat bertso afari eta ekitaldi prestatu dira bertsolaritzaren inguruan.

BERTSOLARITZAREN ETORKIZUNA ETA TRANSMISIOA BERMATUA EGONGO DA GAZTETXEAK, BAPATEKO TALDEAK ETA BERTSO ESKOLAK BERE HORRETAN JARRAITZEN BADUTE.

# lots@gabe

Parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri BARRENera. Animatu!




**@ Kolonia gogokoena?**
Hugo.

**@ Parrandarako tokirik onena?**
Mendaro Santa Anatan.

**@ Zein momentutan geratuko zenuke denbora?**
Azterketa batean ondokoari kopiatu nahi diodanean.

**@ Dutxatzen ari zara eta zulotxo batetik norbait begira dago…**
Zuloa tapatuko nuke!!!

**@ Lotsatia zara orduan?**
Dutxan begi ezezagun batek biluzik ikustea behintzat ez dut gogoko.

**@ Zenbat dirugatik bainatuko zinateke hondartzan abenduan?**
30 eurogatik.

**@ Telefonoz hitz egiten egon zaren denbora gehiena?**
2 ordu.

**@ Idolo bat?**
Curt Cobain.

**@ Munduko diru guztia daukazu eta astebete zure fantasia guziak betetzeko ...**
Nire lagunekin Europan zehar bidaia bat egingo nuke Unax Ugalderekin.

**@ Inoiz egingo ez zenukeen zerbait?**
Nire burua saldu.

**@ Lotan zaude eta euli batek esnatzen zaitu. Eulia hiltzeko jaiki edo manten azpian ezkutatuko zinateke?**
Manten azpian ezkutatu.

**@ Zer egingo zenuke zure azken gauean?**
Juerga on bat bota lagunekin.

**@ Eutanasiaz zein iritzi?**
Sufritzen dagoen batek bere buruaz beste egiteko eskubidea du, beste edozein bizidunek bezala.

**@ Begiak itxi eta 3 desio eskatzeko esango banizu?**
Euskadi askatuta ikustea, nire lagunak ondoan izatea beti eta familiarekin orain bezain ondo konpontzea.

**@ Animalia bat?**
Izurdea.

**@ Noiz hunkitzen zara?**
Gauza polit bat esaten didaten bakoitzean.

**@ Nola ikusten duzu zure burua 50 urterekin?**
Familia batekin, lagunak ondoan eta gustatzen zaidan lanbide batean.



Handia izandakoan ...

# ingeleseko irakaslea

izan nahi dut





**NURIA REVUELTA**

***Nuria Revuelta "magisteritza atzerriko hizkuntzan" ari da ikasten Donostian, Euskal Herriko Unibertsitatean, Enpresaritzako ikasketak benetan gogoko ez dituela ohartu ostean.***

**Nolatan erabaki zenuen diplomatura hau aukeratzea?**

Ingelesa txikitatik gogoko izan dut eta karrera honetan frantses edo ingeleseko irakaslea izateko prestatzen zaituztenez aukera polita iruditu zitzaidan. Hizkuntzak ikastea etorkizuneko giltza da.

**Ingeleseko irakaslea izan nahi duzu orduan?**

Nire titulazioarekin ingeleseko irakaslea izateaz gain, 3-12 urte bitarteko umeei edozein ikasgai irakatsi diezaieket, psikologia, matematikako didaktika... ikasgaiak baititut.

**Zenbat denborako ikasketak dira?**

3 urte irauten dute denera. Bigarren kurtsoan hilabete bateko praktikak egiten dira eta hirugarrenean "praktikak trinkoak" deitzen direnak.

**Zer irtenbide ditu karrera honek?**

Lan mundura begira, ingeleseko magisteritzan behintzat, edozein ikastetxetan edo hizkuntza akademiatan lan egin daiteke. Karrera bukatu bezain laster irakasle sartzeko zerrenda batzuetan ematen da izena eta dituzun puntuen arabera lehenago edo beranduago deitzen dizute. Esperientziarekin, ingeleseko tituluekin, EGArekin.. puntuak lortzen dira eta zerrendan gora egiten duzu pixkanaka. Hasiera batean ordezkapenak egiten hasten zara, horrela puntuak lortzen baitira. Baina denborarekin lan segurua topatu daiteke.

**Nola ikusten duzu zure burua irakasle lanetan?**

Ingeleseko irakaslea izateko ez hain gaizki, baina matematika edo ingurunea bezalako ikasgaiak irakasten ez dut nire burua ikusten.

**Enpresaritza egiten hasi zinen baina orain magisteritza ikasten ari zara. Zer desberdintasun dago bata eta bestearen artean?**

Giroa, batez ere. Magisteritzan taldeak txikiagoak dira, irakasle-ikasle harremana sendoagoa da eta irakasle guztiek ezagutzen zaituzte. Enpresaritzan irakaslea klasea ematera joaten da eta horrek luzera giroa hozten du.

**Gomendatuko al zenioke norbaiti?**

Bai. Karrera guztietan bezala, magisteritzarekin zerikusi handirik ez duten ikasgai batzuk ikasi behar dira, baina orokorrean ikasketa politak iruditzen zaizkit. Ez da karrera zaila baina gau-

## INGELES MAGISTERITZA

**ZENBAT URTE?**
3 urteko karrera

**NON IKASI DAITEKE?**
Bilbon, Gazteisen eta Donostian.

**IKASGAIAK**
Ingelesaren semantika
Ingelesaren fonetika
Psikologia
Soziologia
Matematikaren didaktika
Gorputz hezkuntza eta bere didaktika
Didaktika orokorra
Hizkuntzalaritza
Euskara
Euskara eta bere didaktika

maitasuna laztana pornografia ORGASMOA penetrazioa sexualita- masturbazioa



**Eli Moreno**
**SEXOLOGOA**

sexualitatea

## BEHARREZKOA AL DA BIKOTEA IZATEA ZORIONTSUA IZATEKO?

Uda joan zen eta iritsi da hotza. Amaitu ziren udako jaiak, ligeak, "rollitoak"... Elgoibarko zapatu kañeroak eta domeka aspergarrietan murgilduta gaude jada, hau da, koadrilakin eta ligatzeko diren zapatuak eta bikotearekin goxo-goxo egoteko domekak. Baina, zer? Ez duzu bikoterik? Uf, ikasturte gogorra daukazu, eta aspergarria!!!!

Hau irakurtzean batzuk identifikatu egingo zarete eta beste batzuk jota nagoela pentsatuko dozue. Baina ez dozue inoiz pentsatu gizarte (gogoratu gizartea gu garela) honek bikotea izatera bideratzen gaituela? Esan halakoak entzun edo esan dituzuen: dena jaiotzean hasten da, "ai! Maitia begira ze guapa dan Olatz, gero nobixuak izango zarete!", eskolan hastean jarraitzen du, " eta zein da zure gelako neskarik edo mutilik guapuena? Hori da zure nobixua?", eta jarraitzen du: "badaukazu nobixua edo nobixia? Ez? Zenbat urte dauzkazu ba?"... eta jendeari entzuten diogu: "horrek ez dauka nobixurik, kriston rarua da ta!", " ez, ez dauka bikoterik, halako exigentia da, bera ez da ba beste munduko ezer" , "azkar ibili neska edo mutil zahar geratu behar zara ta!"...

Inori ez jako okurritu, bikotea izatea aukera bat dela! Eta aukerak aukeratu egiten direla!!!

*Biluzik Sexologia Zerbitzua (Astelehena 17:00-20:00)*
*Gazte Informazio Gunea. Kultur Etxea.*
*Bigarren solairuan. Tel. 943 74 14 61.*
*E-maila: biluzikzerbitzua@yahoo.es*

# kontzertuak

## AZAROA

### 21 barixakua

**ONDARROA**
**22:30 Anari & Petti eta Xabier Montoia**
Kafe Antzokian

### 22 zapatua

**BERGARA**
**22:00 Deadly Snakes eta Black**
**00:00 Ministry of Sound - Bacardi party**
Jam aretoan.

**AZKOITIA**
**22:30 Barricada**
Herriko enparantzan

**BILBO**
**21:30 Mikel Erentxun**
Kafe Antzokian

**ONDARROA**
**22:30 Obus**
Kafe Antzokian

### 24 astelehena

**BILBO**
**21:00 Jarabe de Palo**
Kafe Antzokia

### 27 eguena

**BILBO**
**22:00 Gatibu**
Kafe Antzokia

**ONDARROA**
**22:30 Mermaid eta Na Tua Man**
Kafe Antzokian

### 28 barixakua

**BERGARA**
**22:00 Tijuana in blue eta Silencio absoluto**
Jam aretoan.

### 29 zapatua

**BERGARA**
**22:00 Danko Jones eta Electric Eel Shocks**
Jam aretoan.

## ABENDUA

### 2 martitzena

**BILBO**
**21:00 Elefantes**
Kafe Antzokia

### 4 eguena

**BILBO**
**22:00 Fermin Muguruza Kontrabanda**
Kafe Antzokia

### 5 barixakua

**BILBO**
**22:00 Mala Rodriguez**
Kafe Antzokia

**ONDARROA**
**22:30 Fermin Muguruza Kontrabanda**
Kafe Antzokian

### 12 barixakua

**BERGARA**
**01:00 Jam Techno**
Jam aretoan.

### 13 zapatua

**BILBO**
**22:30 Valdemar**
Kafe Antzokia

**ONDARROA**
**22:30 Su Ta Gar**
Kafe Antzokian

gazte informazioa

***Elgoibarko Gazte Informazio Gunea***
*Kultur Etxean. Bigarren solairuan.*
*Tel. 943 741 461*

*Ordutegia:*
*Asteartetik-ostiralera: 16:00-20:00*

## BEKAK

Kazetari gazteak
Bilboko Udalak Bilbao udal aldizkarian lan egiteko bi beka eskaintzen ditu, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean 2002ko uztailetik aurrera lizentziatu diren kazetari gazteentzako. Beken iraupena urtebetekoa izango da eta zenbatekoa 500 euro hileko. Epea: abenduak 3

Proiektu artistikoak
Bilbao Arte Fundazioak 2004 urtean taldean zein bakarka burutuko liratekeen edozein diziplinako proiektu artistikoak hautatzeko deialdia egin du. Bekak bi modalitatetan sailkaturik daude: egoiliarrentzako bekak etatailerrerako bekak. Epea: abenduak 5

## IKASTAROAK

Elkartze-sareak
EDEX-ek elkartze-sareei buruzko 12 orduko mintegi trinkoa antolatu du, erakunde ertain eta txikietako zuzendari, arduradun tekniko eta kideentzat (aisialdiko elkarteak, federazioak, koordinadorak eta plataformak, kultur elkarteak, kirol elkarteak, etab.). Ikastaroa abenduaren 12 eta 13an izango da Donostian, 3 saiotan banatuta. Epea: abenduak 8

Estresaren prebentzioa
Hirugarren Adinekoen Institutu Komunitarioak denboraren kudeaketari eta estresaren prebentzioari buruzko ikastaroa antolatu du, Gipuzkoako gizarte-erakunde desberdinetan parte hartzen duten pertsona, boluntario, zuzendari, eta abarrei zuzenduta. Ikastaroa Donostian izango da abenduaren 1etik 5era bitartean. Epea: abenduak 1

## LEHIAKETAK

Tene Mujika
Debako Udalak XXI. Tene Mujika literatura-lehiaketa antolatu du. Bertara euskaraz idatzitako 4 eta 30 orri bitarteko gai libreko narrazioak aurkez daitezke. Lau sari nagusi eta 18 urtetik beherakoek egindako lan onentzat bi akzesit. 3.150 euro saritan. Epea: azaroak 29

Zorion txartelak
Zarauzko Udalak 2004. urtea zoriontzeko V. txartel lehiaketa antolatu du, 14-30 urte bitarteko gazteei zuzenduta, Zarauzko Gaztelekuak urtea zoriontzeko erabiliko dituen txartelak aukeratzeko. Txartelek 15x10 cm-ko neurria izango dute eta disketean edo paperean aurkeztu daitezke. Epea: abenduak 10

## LANA

Gizarte langilea
Ordiziako Udalak Gizarte Laneko lanpostu bat betetzeko pertsona kontratatu nahi du oposizio-lehiaketa bitartez. Baldintzak: Gizarte Laguntzaileari edo Gizarte Laneko Diplomatuari dagokion titulazioa edo baliokidea eta euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: abenduak 1

Aparejadorea
Ordiziako Udalak aparejadore-lanpostu bat betetzeko pertsona kontratatu nahi du oposizio-lehiaketa bitartez. Baldintzak: Arkitekto Teknikoaren titulua eta euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: abenduak 1

Ofizial elektrikaria
Ordiziako Udalak ofizial elektrikari lanpostu bat betetzeko pertsona kontratatu nahi du oposizio-lehiaketa bitartez. Baldintzak: Eskola Graduatua, LHI edo titulu baliokide bat eta euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: abenduak 1

# Pertsonen kudeaketarako araudia aurkeztu dute




Makina Erremintaren Institutuan *IIP* izeneko pertsonen gestiorako eredua aurkeztu da, R5 Sareko Lanbide Heziketako ikastetxeetan egindako esperientzia agertuz, eta IMHko eredu praktikoa adieraziz.

*IIP*a pertsonen formazio eta garapen profesionala bermatzeko praktika egokienak aipatzen dituen nazioarteko araua da. Lanbide Heziketako Zuzendaritzak (DFP) beren begiz ikusi ahal izan zuen Erresuma Batuan. Egun, Lanbide Heziketako Zuzendaritzak R5 sarean bi proiektu garatzen dihardu (Guneka eta Ardatz).

*IIP* araudiaren eta R5 sarea osatzen duten ikastetxeetan (Usurbil, Bidasoa, Tolosa, Bergara eta Elgoibarko IMH) egin den aplikazioari buruzko aurkezpen saioan ondorengoek hartu zuten parte: Tomas Orbea, Aenorreko zuzendariordea, Kike Intxausti, Lanbide Heziketaren Konpetentzia eta Kalitatearen Euskal Agentziako kalitate arduraduna, David Lecuona, Novoteceko kontsultorea eta IMHko zuzendaria, Joxean Egaña.

## Ikastolakoak Andutz mendira joango dira datorren azaroaren 23an

Elgoibar Ikastolako gurasoak hasi dira mendi irteerak antolatzen. Datorren azaroaren 23an, igandea, Elgoibar Ikastolako guraso eta ikasleak Andutz mendira joango dira. Ikastolatik irtengo dira goizeko 9:30ean, eta Itziarrera joango dira, bertatik, 610 metroko altuera duen Andutz mendi gailurrera igotzeko asmoz.

## Peio Añorga ipuin kontalariaren emanaldia izango da Liburutegian



Aurtengo irakurketa suspertzeko kanpainaren barruan, Peio Añorga ipuin kontalariaren emanaldia izango da Udal Liburutegian, datorren astelehenean, azaroaren 24an. Peio Añorgak bi saio eskainiko ditu: Lehenengoa arratsaldeko 17:00etan, 3, 4 eta 5 urteko umeentzako; bigarrengoa 17:45ean, 1,2, eta 3. mailako umeentzako. Iaz ere, "Txikiteka" egitasmoaren barnean, etxeko txikienek liburutegirako bidea ikas dezaten antolatutako ekintzen artean, Peio Añorgaren emanaldia antolatu zuten, eta 100 haur inguru izan ziren bere ipuinak entzuten.

## ESKOLA EMAITZAK

### 4. Jardunaldia

FUTBOLA, Mintxetan

n Infantil mutilak n

Ikastola B 1 - BHI B 12

Pilar A 0 - BHI A 1

Pilar B 5 - Ikastola A 1

n Infantil neskak n

Pilar B 0 - BHI A 1

Ikastola A 4 - Ikastola B 5

ESKUBALOIA, Kiroldegian

n Benjaminakn

Pilar C 0 - Herri Eskola B 1

Herri Eskola A 0 - Herri Eskola C 2

Pilar A 0 - Ikastola A 2

Pilar B 1 - Ikastola B 1

Mendaro B 2 - Ikastola D 0

Mendaro A 0 - Ikastola C 2

SASKIBALOIA, Herri Eskolan

n Alebin mutilak n

Herri Eskola A 26 - Pilar A 9

Pilar B 17 - Mendaro A 38

Ikastola A 15 - Ikastola B 50

n Alebin neskak n

Pilar B 13 - Herri Eskola A 27

Ikastola A 2 - Ikastola C 44

## AGENDA

### Azaroak 22

ATLETISMO JARDUNALDIA, Mintxetan

n Benjaminak n

10:00 50m zig-zag

10:45 Pilota

11:30 Altuera/luzera

12:15 4 x 50m

n Alebinak n

10:00 Pilota

10:45 Altuera/luzera

11:30 60m

12:15 4 x 60m

n Infantilak n

10:00 Altuera/luzera

10:45 80m

11:30 Pisua

12:15 4 x 80m

# Jose Mari Fernandez Suso k 7. garaipena lortu zuen Karakatera Igoeran











***Goiko argazkian, Karakatera igoeran parte hartu zuten korrikalariak. Ezkerreko argazkitan lasterketako une batzuk eta lehen hiru sailkatuak.***

Jose Mari Fernandez "Suso"k Karakateko igoeraren erregea dela frogatu zuen beste behingoz pasa den azaroaren 15ean. Plaza Handia eta Karakateko tontorrean dagoen puntu geodesikoa bitartean dauden aldapa gogorrak 32 minutu eta 12 segundutan igo zituen, iaz baino 8 segundu gehiago erabiliz. Igoeraren 10. edizioa izan da aurtengoa eta elgoibartarrak 7 alditan irabazi du. Azkenengoa berezia zen, gainera, iaz proba irabazi bezain laster aurtengoa azkena izango zela iragarri baitzuen tontorrean bertan. Aurten katarroarekin pasa duela aste osoa eta entrenamenduetan ez zela 34 minututik jeitsi aipatu zuen probaren ostean, baina egunean bertan sentsazio oso onak nabaritu zituela gaineratu zuen. Hasieratik bera izan zen erritmoa ezarri zuena.

## Urtebete pentsatzeko

Juan Cruz Montes eta Ibon Gabilondo herritarrak izan ziren "Suso" hurbiletik jarraitzeko gai izan ziren bakarrak. Azken txanpan Gabilondok Montes pasa zuen eta "Suso"rengandik 27 segundura sailkatu zen. 25 urteko elgoibartar honek parte hartzen zuen bigarren aldia zen eta etorkizunean "Suso"rentzat kontutan hartzeko lehiakidea izan daitekeela erakutsi zuen. Izan ere, garaipenaren ostean, "Suso"k ez zuen argitu bere agur lasterketa izan zen edo ez. Urtebete duela pentsatzeko adierazi zuen, irabazi ostean zaila baita agur esatea. Guztira 16 partaidek eman zuten izena, denak gizonezkoak. Karakate gaina, berriz, ikusminak erakarritako ikuslez gainezka egon zen. Autoz, bizikletaz eta oinez igo ziren herritar asko. Tontorrean haize hotzak egin zien agur, baina partehartzaileek ez zuten hotz gehiegirik pasa, motorrak bero-bero zituztela iritsi baitziren.

## Sailkapen

| Izena | Denbora |
|---|---|
| 1. Jose Mari Fernandez | 32·12 |
| 2. Ibon Gabilondo | 32·39 |
| 3. Juan Cruz Montes | 32·46 |
| 4. Carlos de Cos | 33·45 |
| 5. Joseba Altuna | 33·54 |
| 6. Iñigo Ortuoste | 34·35 |
| 7. Javier Torquemada | 35·09 |
| 8. Igor Rey | 35·36 |
| 9. Sabino Zenarruzabeitia | 35·49 |
| 10. Igor Agirregomezkorta | 35·59 |
| 11. Martin Dominguez | 36·26 |
| 12. Asier Arrieta | 36·28 |
| 13. Ion Asensio | 36·30 |
| 14. Javier Muñoz | 39·30 |
| 15. Juan Perez | 39·48 |
| 16. Andoitz Agirregomezkorta | 42·20 |

# Patxi Arriola Gipuzkoako txapeldunorde Oila - gor Ehiza Txapelket an

## Euskadiko Oilagor Ehiza Txapelket an hartuko du parte azaroaren 30ean

Irukurutzeta inguruan ehizatutako oilagor bati esker Gipuzkoako txapeldunorde izatea lortu zuen pasa den azaroaren 15ean, Patxi Arriola ehiztari elgoibartarrak. Guztira 20 lagunek hartu zuten parte eta lehen hiru sailkatuek bakarrik ehizatu zuten piezaren bat, oilagor bana bakoitzak. Patxik azaldu digunez 7 minutuko aldeagatik ez zuen txapela jantzi. Antzuolako Iñaki Toledo izan zen garailea eta Francisco Etxebeste oiartzuarra hirugarren sailkatua. Txapelketaren funtzionamendua azaldu digu Arriolak: “Gipuzkoako 5 ehiza elkartetako kideak aurrez erabakitako soziedade batian elkartzen gera goizeko 8:00etan eta handik bakoitza nahi daban tokira juten da ehizara epaile bat lagun hartuta. Nik Irukurutzeta inguruko parajiak aukerau nitxuan, ezagutzen baititut”. “Lur” txakurrarekin aritu zen Patxi, hainbat ehiza garaipen lortzen lagundu dion “Dalo” txakur famatuaren alabarekin, hain zuzen ere. Txakur ona eta ehiztari fina izan arren, ehizarik ezean jai dago, ordea, eta txapelketa egunean oilagor gutxi zaudela aitortu digu San Lorentzoko ehiztariak, “oilagorretarako garairik onena azarua da, baina pasa dan asteburuan gutxi ikusiko genitxun jakinan gainian jun ginan”.



*Patxi Arriola "Lur" txakurrarekin.*

**Euskadiko Txapelketa**

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lehen hiru sailkatuek eta iazko irabazleak Euskadiko Txapelketan hartuko dute parte azaroaren 30ean Leizaranen. Patxik aitortu digunez, lasaiago hartzen ditu txapelketak orain, “lehen gehiago prestatzen nituen, eta ez banuen irabazten pena gehiago hartzen nuen. Ingurukoen presioa ere handiagoa izaten zen. Orain oilagor txapelketara bakarrik aurkezten naiz eta gehiago aritzen naiz ehizan nire kontura”.

## EMAITZAK

### Futbola

Haundi 2 Bergara 0 (Pref.)
Tolosaldea 2 Elgoibar 1 (1. erreg.)
Elgoibar 2 Hondarribia 2 (Jub.)
Zarautz 1 Elgoibar 0 (Inf.)
Arrasate 5 Elgoibar 7 (Aleb.)
Salvatierra 0 Elgoibar 2 (Neskak)
Gasteiz 2 Elgoibar 1 (Neskak F-8)
Pedrusko 2 Zarautz 2 (1. erreg.)

### Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa
Lagunak A 22 Behar Zana 17 (Nag.)
Lagunak B 22 Zumaiako 8 (Nag.)
Lagunak 9 Aæorga 22 (Jub.)
Aloæa Mendi 8 Lagunak 18 (Inf.)

### Areto futbola

Astraburuko 4 - Kenci Elg. 7 (Nazional B)
Lanbroa 5 Ostatu 0 (2. maila)
Magefesa 7 Goierri 6 (Jub.)
Lojantzi 1 Zarauz 12 (Jub.)

### Eskubaloia

Astraburuko 4 - Kenci Elg. 7 (Nazional B)
Lanbroa 5 Ostatu 0 (2. maila)
Magefesa 7 Goierri 6 (Jub.)
Lojantzi 1 Zarauz 12 (Jub.)

### Saskibaloia

Lojantzi 77 -Aloæa Mendi 68

## AGENDA

### Areto futbola, Kiroldegian

Zapatua, 22
16:00 Kenci Elg. Altamira Txutxi (Nazional B)

### Futbola, Mintxetan

Zapatua, 22
16:00 Elgoibar Ilintxa (1. erreg.)
18:00 Elgoibar Urola (Neskak)
Domekia, 23
10:30 Elgoibar Soraluce (Kad.)
12:15 Elgoibar Lagun Onak (Inf.)

### Esku pilota, Ikastolan

Barixakua, 21
22:00 Lagunak B Beloki (Nag.)

### Eskubaloia, Kiroldegian

Zapatua, 22
17:30 Cometel Elg. Elorrio (Jub. nesk.)
19:00 Pagoaga Elg. Elorrio (Kad. nesk.)
Domekia, 23

Anchústegui
Sanyfer
ESPOSIZIOA
ALMAZENA
BULEGOA
Olaso industrialdea
Olasope, 5 • 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

Iriondo TABERNA
Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

# merkatu txi-

2003-XI-21

**OHARRA:**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Langai
Euskal Lan Zerbitzua

Bilboko enpresak ingeniaria behar du. Erref. 113045/3

Donostialdeko enpresak planifikatzailea behar du. Erref. 113056/1

Durangoaldeko enpresak delineantea behar du. Erref. 113231/1

Durangoaldeko enpresak komertziala behar du. Erref. 109721/3

Eibarko enpresak bi komertzial behar ditu. Erref. 112850/3

Debabarreneko enpresak CNC fresadorerako langilea behar du. Erref. 112717/2

Eibarko enpresak aho garbitzailea behar du. Erref. 112554/2

Bilboko enpresak ingeniaria behar du. Erref. 112440/3

Donostialdeko enpresak laborategi arduraduna behar du. Erref. 112426/2

Durangoaldeko enpresak metalerako peoia behar du. Erref. 111916/5

Donostialdeko enpresak webspehere analista behar du. Erref. 111783/2

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo Langai -k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Alberto Iturricastillo) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Ram n) 943 74 41 32 telefonora.

## Lana

ESKAERA

' Neska euskalduna igande eta jai egunetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. % 616 53 37 96

' Emakumea etxeko lanak edo garbiketa lanak egiteko prest. Egun solteak. % 943 74 22 01

' Neska gaztea umeak zaindu edo dependienta lanak egiteko prest. % 696 436 667

' Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. % 943 74 30 56

' Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. % 943 75 24 31/600 89 06 41

' Emakumea egun erdiz garbiketa lanak egiteko prest. % 639 88 20 04

' Neska gaztea edozein lan egiteko prest. Umeak zaindu, eskolara eraman, garbiketa lanak... % 680 68 20 82

ESKAINTZA

' Astean zehar, gauez tabernan lan egiteko pertsona behar da. Euskalduna eta esperientziaduna. % 687 05 17 89

' Kamarerora behar da. % 943 74 42 65

' Emakume bat behar da ume bat zaindu eta etxekolanak egiteko. Gaueko 8etatik aurrera. % 687 273 171

## Etxebizitzak

' Buardila salgai. Bi logela eta trastelekua. % 630 87 00 54

' Bikote batek pisua hartuko luke alokairuan. Ez dadila oso garestia izan. % 615 72 54 19 (Leire)

' Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta despentsa. Eguzkitsua. % 636 22 31 42

' Pisua salgai Ubitarte Plazan. Dena kanpora begira, eguzkitsua, 62m². Bikote batentzako aproposa. Dena berritua. % 696 74 91 59

' Etxea salgai herri erdian. 3 logela, amueblatua, berritua, bizitzera sartzeko moduan. % 661 42 60 77

' Etxebizitza salgai San Antolinen. 5" ezk. % 943 74 22 05

' Pisua alokatzen da Deban ekainera arte. % 943 74 13 39

' Pisua hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da. % 943 74 37 74 (Paki)

' Etxebizitza salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua, berogailua, bi balkoi eta ganbara. % 661 23 77 11

' Etxebizitza salgai San roke auzoan, Arregitorren. 90 m², 3 logela, sukaldea, saloia, bi komun eta bi balkoi. Trastero eta ganbaran. Guztiz berritua eta kalitatezko muebleekin (aukeran). % 616 78 51 20 (arratsaldez deitu)

## Garajeak

' Kiroldegi ondoan bi garaje salgai. % 626 60 71 55

' Pista Beltzean bi garaje salgai. Bata itxia. Bestea irekia, bi kotxe sartzeko modukoa. Merke, aukera bikaina. % 943 74 20 34/639 35 33 31

' Garajea hartuko nuke alokairuan Leku Ederren edo inguruan. Itxia merke, edo marrekin banatutakoa. % 696 89 60 88

' Garajea alokatzen da Leku Ederren. 3. solairuan. % 943 74 20 09

' 200m²ko lokala salgai San Lorentzon. Lur sailarekin. % 686 26 27 27

' Lokala alokatuko genuke Elgoibarren. % 636 91 07 06

' Euskarazko klaseak emateko irakasle partikularra behar da. % 696 96 40 69

' Opel Corsa 1.2 autoa salgai. 3 ate, beltza. SS-5560-AF % 943 74 07 12

' Harategiko barrak (altzairu inoxidablea) eta trangadera salgai. % 943 74 01 22

' Chrysler voyager 2.5 Lx CRd salgai. 2001ekoa. 33.261 km. % 943 74 34 00

' Honda Shadonn motorra salgai. 600cc. Prezio onean. % 635 72 00 91

' Opel Kadett 1.800i GT. salgai. Oso merke. 660 euro. % 635 72 00 91

' Bi eskopeta salgai. Paraleloak. Bata usotarako eta bestea oilagorretarako. % 635 72 00 91

' Audi 100 autoa salgai. Diesela. 900 euro. % 94 620 39 45

' Citroen ZX 1.6i, 90 zaldi, salgai. 6 urte. Airbag, irrati-kassettea, ispilu elektrikoak, kristal beltzak, Saxoaren llantak, selex amortiguadoreak... % 659 554 564

' Caritasek butano-berogailua eta jangelarako mahaia behar ditu. % 943 74 15 09

' Wolkswagen Caddy, 1900 TDI autoa salgai. 130.000 km. % 670 23 52 54

' Setter ingeles arrazako txakurra salgai. Oso modu onean. % 943 03 35 03

' 90eko bi ohe berri salgai. Berri berriak, armairu eta mesillekin. Santa Ana 22an. % 943 74 24 57 (eguerdian edo iluntzean deitu)

' Renault 19 1.4cc. salgai. Egoera oso onean. Itxiera zentralizatua eta leiho igogailu zentralizatuak. Ekonomikoa. % 646 16 04 80 (15:00etatik aurrera)

' Peugeot 205 gasolinazkoa salgai. Egoera oso onean. % 943 74 32 94

' Ezkon soinekoa salgai konplemento guztiekin. Marfil kolorekoa. Udazken-negurako egokia. Egoera onean. % 646 37 59 14

' Opel Vectra DTI. 2.2 saport salgai. Txuria, 5 ate. 2002. urtekoa. Kapot elektrikoa, klimatizadorea, ordenadorea... urte beteko garantia. % 616 26 62 12

## Bestelakoak

' Kanariok ihes egin digu etxetik. Hilaren 18tik dago desagertuta. Txuria da. % 626 38 54 53

' Katu persa oparitzen dut. 3 urte ditu. % 636 52 38 03

' Azaroaren 9an, larunbatean kremailera dun jertse beltza trukatu zen Lanbroa taberman. Norbaitek deskuidatuta berea ez zen jertsea hartu zuen. % 943 74 16

# Agurrak



' Zorionak Maialen, hilaren 18an 2 urte egin zenituelako. Familiakoen partez muxu handi bat.



' Zorionak Ion Conde, azaroaren 24an, 6 urte beteko dituelako. Familiako guztien partez.



partez.

' Zorionak Aitor! Zurekin futbitoak aurrera egingo du. Etxekoen partez.



pasa!

' Zorionak Urzainki, gaur 9 urte bete dituzula-



23an, 63 urte beteko dituelako. Seme-alaba eta iloba guztien partez.



' Zorionak Andreari, bihar, hilak 22, 7 urte beteko dituelako. Guraso, aiton-amona, lehengusu eta osaba-izeben partez.



' Zorionak Unairi, azaroaren 19an, 3 urte bete dituelako. Lehengusu Ion, Asier, Olatz, Haritz eta familiako guztien partez.



' Zorionak Amaiari, hilaren 20an, 2 urte bete dituelako. Etxekoen, eta bereziki, ahizpa Mirenen



ko. Familiako guztien partez.

' Zorinak Adoracion Garridori, azaroaren



' Zorionak Jarari, azaroaren 24an, 2 urte beteko dituelako. Familiakoen eta bereziki, Ruthen partez.



' Zorionak Nerea, hilaren 27an, 2 urte beteko dituzulako. Aiton-amona, osaba-izeba, lehengusu eta batez ere, birramona Mariaren partez.



' Zorionak Amaia Conderi, hilaren 20an, 10 urte bete zituelako. Espero dugu Alkizan ondo pasatu izana. Gurasoen eta zure ahizpa Cristinaren



partez.

' Zorionak potxolito, bihar, hilak 22, 3 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez, muxu handi bat. Oso ondo



' Zorionak bikote, larunbatean ezkonduko zaretelako. Oso ondo pasa! Familiakoen eta batez ere, Irene iloba eta lagunen partez.

' Jose Mari Aizpurua Epelderieta Loli Gazteluri zorionak. Ondarruko familiakoen partez.



' Zorionak Julia, Lorena eta Juleni zuen urtbetetzean. Mendaroko lagunen partez.



' Zorionak Nerea eta Aimar, azaroaren 27an, 2 urte beteko dituzuelako. Gurasoen partez, muxu handi bat.






# agenda

2003-XI-21

## Jubilatuen astea

**Azaroak 25,**
martitzena
18:00 Txokolatada
Jubilatuen Biltokian

**Azaroak 26,**
eguaztena
18:00 Gabonetako 40 otarraren zozketa
Jubilatuen Biltokian

**Azaroak 27,** eguena
14:00 Bazkari Berezia
Ondoren, 80 urtetik gorakoei, hauen ezkonkideei eta urrezko ezteiak egiten dituztenei omenaldia.

**Azaroak 29,** zapatua
17:00 Kina Berezia
Jubilatuen Biltokian

**Azaroak 30,** domekia
12:30 Hildako jubilatuen omenezko meza
San Bartolome parrokian
18:00 Dantzaldia Gelatxorekin

## 21 BARIXAKUA

**19:30 SANTA ZEZILIA KONTZERTUA**
Musika Eskolako Auditorioan
**22:00 ZINE FORUM-A**
“Amores en tiempos de guerra”
Dinamizatzailea: Eskarne Larrinaga
Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

## 22 ZAPATUA

**19:00 JOSU LARIZEN ASKATASUNA ESKATZEKO MANIFESTAZIOA**
Irteera: Madalatik
Antolatzailea: Etxerat
**19:00 PARROKIAKO ABESBATZAREN EMANALDIA**
Santa Zezilia Eguneko emanaldia
San Bartolome parrokian
**19:30 ITXAROPENA ABESBATZAREN EMANALDIA**
Santa Zezilia Eguneko emanaldia
19:00etako meza ondoren
Udaletxeko arkupeetan
Zuzendaria: Judit Murcia

## 23 DOMEKIA

**9:30 ANDUTZ MENDIRA IRTEERA**
Irteera: Ikastolatik
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola
**9:45 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**
**12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN SANTA ZEZILIA KONTZERTUA**
Herriko Antzokian

## 25 MARTITZENA

**21:30 HITZALDIA**
Gaia: “Sexu indarkeria”
Hizlaria: Loredi salegi
Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

## 28 BARIXAKUA

**9:00 IBAN MAYO EUSKALTELEKO TXIRRINDULARIAREKIN ELKARRIZKETA**
Moderatzailea: Iñigo Lariz
Ikasleen galderak erantzungo ditu
Mekanikan



## ZINE kluba




### "Respiro"

**Zuzendaria: Emanuele Crialese**
**Antzezleak: Valeria Golino, Vincenzo Amato, Francesca Casisa.**
2002ko Cannesko Zinemaldiko Kritikaren Asteko Saria eskuratu zuen Crialeseren bigarren filmeak. Lampedusan girotua dago, Sizilia hegoaldean galduriko uharte eder eta idorrean. Arrantzale zaildu eta kementsuek osatzen dute biztanleria eta haurrek jolasean ateratzen dituzten zaratak dira herriko ixiltasuna apurtu eta errutina hausten duten bakarrak. Grazia, bi nerabe eta haur txiki baten ama ameslari eta askatasun zalea da. Bere izaera dela eta zailtasunak izango ditu bizilagunen artean moldatzeko.

## BERTSOAK

**Bertso afaria**

Gazte Asanbladak bertso afaria eskainiko du gaur, hilak 21, Gaztetxean. Gaueko 21:30etatik aurrera Etxeberriko Joseba Artza eta Mallabiko Beñat Ugartetxea bertsolari gazteek alaitutako afari eta afari ostean parte hartu ahal izango dute izena ematen dutenek. Prezioa 12 eurotakoa da (9 euro langabetuek) eta tiketak bertan lortu daitezke.

**Babarrun jana bertsolariekin**

Mendaroko Udalak bertsolariekin babarrun jana antolatu du Kontsezio Azoka Egunean, abenduaren 6an, Memdaroko Luzaide jatetxean. Eguerdiko 15:00etan izango da bazkaria eta prezioa 20 eurokoa da. Menua: babarrunak saiheskiarekin, odolkiarekin edo azarekin aukeran. Postrea gazta eta intxaurrak. Txartela aurrez hartu beharko da, abenduaren 2a baino lehen. Udaletxean edo tabernetan izango dira salgai.

## IKASTAROAK

**Etxez etxeko laguntza**

Etxez etxeko laguntza eskaintzeko profesionalak hezitzeko ikastaroa antolatu du Arinduz Elkarteak Gizasunbiderekin (Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa Elkartea) elkarlanean. Langabetuei zuzendutako ikastaroa izanik, dohanekoa izango da. Batez ere 45 urtetik gorako langabetu eta emakume langabetuei zuzenduta dago. Abenduaren 15ean hasiko da ikastaroa Eibarren eta 300 orduko iraupena (100 ordu praktiko) izango du. Izena emateko azaroaren 30a baino lehen 943 22 41 93 telefonora deitu eta Nagore edo Larraitzegatik galde egin.

## MARTXAK

**Eibar-Gasteiz autopistaren aurka**

Deba bailarako gazte Asanbladek, Eibar, Bergara, Soraluze eta Elgoibarkoek, Eibar-Gasteiz autopistaren aurka protesta egiteko martxa antolatu dute. Azaroaren 22an, zapatuan, izango da. Goizeko 10:00etan hasiko dira prestatu dituzten ekintzak Bergarako Gaztetxean. Hamarretakoa egin ostean txarla informatiboa izango da. Ondoren, Soraluzera abiatuko dira eta eguerdiko 14:00etan Soraluzeko Gaztetxean bazkalduko dute. 15:00etan Eibarrerantz jarraituko du martxak. Eibarko Gaztetxean 20:00etan afari-merienda egin eta gaueko 21:00etan kontzertuak hasiko dira Gaztetxean bertan. Taldeak honakoak izango dira: “Hurto”, “Sin oficio ni beneficio” eta “Paso a paso”.

## LEHIAKETAK

**Gabonetako Ipuin Lehiaketa**

Mendaroko Udalak Gabonetako Ipuin Lehiaketa antolatu du aurten ere. Honako hauek dira parte hartu ahal izateko oinarriak: Lehiakide bakoitzak gehienez lan bakarra aurkez dezake. Ipuinak euskaraz idatziak egon behar dute, saririk jaso gabeak, argitara eman gabeak eta gai librekoak. Lanak eskutan edo postaz jasoko dira helbide honetan 2003ko abenduak 10era arte: Mendaroko Udala (Kultura Saila) Herriko Enparantza 1 zkia. 20850 Mendaro. Sari banaketa abenduaren 24an, goizeko 12:00etan izango da Mendaroko Udaleko Udalbatza aretoan. Argibide eta informazio gehiago Mendaroko Udalean jaso dezakezue. E-posta: kultura@mendaro.net. Telefonoa: 943 03 32 82.

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian**

**“Diablo”**
21, barixakua: 22:15
22, zapatua: 19:30-22:15
23, domekia: 16:30-19:30-22:15
24, astelehena: 22:15

**“Rugrats vacaciones salvajes”**
23, domekia: 16:30

**“Respiro” (Z.K.)**
27, eguena: 22.15

**“Italian Job”**
28, barixakua: 22.15

**EIBAR, Unzaga**

**“Carmen”**
21, barixakua: 19:30-22:15
22, zapatua: 17:00-19:30-22:30
23, domekia: 17:00-19:30-22:30
24, astelehena: 19:30-22:15
25, martitzena: 19:30-22:15
26, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR, Rialto**

**“Matrix Revolutions”**
21, barixakua: 19:30
22, zapatua: 17:00-19:30
23, domekia: 17:00-19:30
24, astelehena: 19:30
25, martitzena: 19:30
26, eguaztena: 19:30

**“Enigma”**
21, barixakua: 22:15
22, zapatua: 22:15
23, domekia: 22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## ZINE



### "Diablo"

**Zuzendaria: F. Gary Gray.**
**Antzezleak: Vin Diesel, Juan Fernandez, Geno Silva.**
**+18 urte**

Sean eta Demetrius Los Angeleseko kale gogorretan koskortu ziren DEAko bi agente dira. Zazpi urte pasa dira Mexiko eta Estatu Batuen arteko mugako droga trafikoa geratzeko erabaki irmoa hartu zutenetik. Herritarrek “Pistolero” ezizenaz ezagutzen dituzte kalean, darabiltzaten teknika gogorregatik. Behe Kaliforniako Karteleko mafia bururik nagusiena kartzelan sartzean, arazoari amaiera eman diotela usteko dute, baina “Diablo” deitzen dioten gizon misteriotsu batek karteleko buru izan nahiko du.

# erretratu zaharra

2003-XI-21



Aste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. Argazkia 1968. urte ingurukoa da, eta Plaza Txikian aterata dago, gaur egun Leku Eder parkea dagoen inguruan. Garai hartan eskola zegoen bertan, eta ikasle asko ibiltzen zen patioan jolasean. Argazkian mutikoz osatutako futbol talde bat ikusten da. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri diren mutikoak:
Goiko ilaran, zutik, ezkerretik eskumara: **Anjel Garate**, **Jose Mari Juaristi**, **Juanito Jimenez** eta **Leturia**.
Beheko ilaran, makurtuta: **Jose Luis Laskurain**, **Roberto Panizo** eta **Sotero Calleja**.



***ESKERTZA***

*2003ko azaroaren 8an, 75 urte zituela hil zen*
***JESUSA GARAYALDE ISTILART****en sendiak,*
*bihotzez* ***ESKERTZEN*** *ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





***I. URTEURRENA***

*2002ko azaroaren 20an, hil ziren* ***MARGARITA*** *eta*
***SABINA MUGURUZA ETXEBERRIA****ren oroimenez,*
***URTEURRENEKO MEZA*** *izango da Parrokian*
*larunbatean, hilak 22, arratsaldeko 19:00etan.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



Denda Berria

Eibarren

# ayerbe

LIBURUDENDA

Zezenbide 9
Tel./Faxa: 943 20 22 30
20600 EIBAR
(Gipuzkoa)




KALITATEAK, DISEINUAK ETA PROFESIONALTASUNAK GURE IZENA DEFINITZEN DUTE

ate-ona

Juin auzunea, 1-A
20720 Azkoitia (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 85 17 55
Fax: 943 85 28 02

FABRIKAKO PREZIOAK

BEHERAPENAK



**KALITATE eta PREZIO paregabeekin, aukera ezin hobea!**

*Ateak*
*Oholtza parketak*
*Leihoak*
*Armairu enpotratuak*
*Sukaldeko altzariak*
*Elektragailuak*
*Mahaiak eta aulkiak*
*Lanparak*
*Relax koltxoiak*
*Altzairu laguntzaileak*




**ATEAK** Blindatuak Barrukoak

**LEIHOAK** PVC Aluminioa Zura

**ARMAIRU ENPOTRATUAK** Neurrira

BILA ZABILTZAN GUZTIA AURKITUKO DUZU GUREAN

# ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA

Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

## **Ordenagailu bidez** *teoria ikasteko gela berria* !



**ORDUTEGIA**

**10:00**etatik-**12:30**era
**15:00**etatik-**20:30**era



**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR